



**BERMEOKO UDALA**  
(BIZKAIA)

IKASLE TALDEEK UDALETXERA BISITALDIAK

EGITEA ARAUTZEN DAUAN UDAL ARAUDIA

Bermeon, 1.991eko Urria

1

---

<sup>1</sup> AR-E 52/01-03

1



## BERMEOKO UDALA

(BIZKAIA)

Herrian kokatzen diran erakunde publikoen barri izateko, ikas egitarauen barruan, ikasturte bakoitzean zehar, Udaletxea bisitatzzen daben herriko Ikastetxeetako ikasle taldeen ohiturea, azken urteetan sustraitu egin danez.

Bisitaldi honeek, oinarrizko helburu bi, daukaz. Lehen eta garrantzizkoena, erakunde ezbardinen eginkizunak ezagutzea, litzaiteke, eta baita, erakunde horreek kokatzen diran eraikuntzen kondaira edo arkitekturazko egoera eta zehaztasunei buruzko argitasunak izatea.

Aspaldi danik, Bermeoko Udalak, horrelako eskariak izan dauz, Eleizalde Ikastolea izan zan, bisitaldiok egiten hasi zana, eta geroago, herriko beste Ikastetxe batzuk jarraitu dabe ohitura hori, eta azken baten, Herriko ikastetxe guztietara hedatuko danaren ustea dago.

Udalak, bere aldetik, orain arte, egin dauan modura, eskariak onartzeaz gain, indartu eta bultzatu egin behar dauz. Honela, gazteen eta hain gazteak ez diranengan ere, gure herriko ordezkariak jatorrizkoa eta askatasunen bermea dan Erakunde honek bere barruan gordeten dauana zehatz eta benetan, ezagutzeko nahia eta berari buruzko eritzia sortarazteko.

Horregaitik, Arautegi honegaz lortu nahi doguna da, alde batetik, bisitaldi honeek gitxiengo batez arautzea, eta beste batetik, Udala zer dan, ikasleei zehazki ezagutaraztea, bestetik, bai egitura aldetik eta baita antolakuntza aldetik ere, eraikuntzea ahaztu barik, bertan barruan aurkitzen diran ezker, sail eta zerbitzu publiko guztiak.



**BERMEOKO UDALA**  
(BIZKAIA)

LEHEN ARTIKULOA

Herri honetako bai publiko nahiz pribatuak diran Ikastetxeek, Udaletxea bisitatu daikie, Udalaren antolakuntza eta aritze arloei buruzko argibideak izateko, baita, bertan aurkitzen diran artezko gauza eta bere arkitektureari buruz.

BIGARREN ARTIKULOA

Bere irakasleak lagundurik, joango da ikasturte osoa, bisitaldi bakoitzean.

HIRUGARREN ARTIKULOA

Aurretiaz, Irakasleak jakinarazi beharko deutso Udalari, bisitaldia egin nahidala, egin nahidan eguna eta ordua zehazturik. Udalean gestio hau egingo dauanak, lagunduko deutso taldeari, bere bisitaldian, eskatzen daben informazio guztia emonaz.

LAUGARREN ARTIKULOA

Egunean, talde bi baino gehiagorik ez da onartuko.

Ikasturte bakoitzerako legez jarritako ikasle kopuru baino handiagorik ere, ez da talde bakoitzerako onartuko.

BOSTGARREN ARTIKULOA

Jarritako egunean, helduko da taldea bere Irakasleagan, Udaltetxera, ordu egokian, eta han hartuko dau, horretarako Udalak izendatutakoak, taldea Udaletxean dagoan bitartean gidari eginkizunak beteturik.



**BERMEOKO UDALA**  
(BIZKAIA)

SEIGARREN ARTIKULOA

Bisitaldia, honela osotuko da:

a) - Gidariak, Udaletxeko egoitza edo sail ezbardinak erakutsiko deitsoz Taldeari, hau da, Alkatetzea, Idazkaritzea, Bulego Orokorrak, Batzar Aretoa, Batzorde Gelea, Artxiboa, etab., bakoitzaren eginkizunak azalduz.

b) - Udaleko Alkateak eta Idazkariak hartuko dauz, taldeagaz elkarrizketak izanik, eta egingo diran euren ahalmen eta eginkizunei buruzko galderari erantzunak emango dituzte.

c) - Udaletxearen edesti nahiz arkitektura arloko informazioa ere, emongo jake.

d) - Azkenik, gidariak eta ahal balitz Alkateak eta Idazkariak ere, ikasleek egiten dabean galdera guztiei erantzunak emango dabe, Udaletxeari, Udalarri eta Udalerri mailako arazoetatik diranean.

ZAZPIGARREN ARTIKULOA

Bisitaldi bakoitzerako Udalak, sari bat ezarriko dau, bere hasieran iragarriko dalarik, eta egindako bisitaldiari buruz, bere Ikastetxean lanik hoberena egindako ikasleari emongo jakona. Saria inoiz ez da diruzkoa izango, didaktikoa edo ohorezkoa baizik.

Horretarako, ikasmaita bakoitzeko irakasleak, bisitaldiaren egunetik hasitako hamabost eguneko epe barruan, ariketak neurtu



**BERMEOKO UDALA**  
(BIZKAIA)

ondoren, idatziaz egin beharko dau bere proposamena, lan horren eta punturik gehien lortu daben hurrengo hiru lanen kopia, Alkatetzeari emonaz.

ZORTZIGARREN ARTIKULOA

Ikasturtea amaitu ondoren, Udaletxeko Batzar Aretoan izango dan ospakizunean, bisitaldietan zehar saritutako ikasleei sariak emongo deutsez Alkateak.

Bermeon, 1.931eko Urria

